

Oñatiko Udala eta Olaso Dorrea Fundazioaren arteko hitzarmena

OñATIn, 2025ko uztailaren 28an, ondorengoak

BILDU DIRA:

Alde batetik, Izaro Elorza Arregui anderea, NANxxx-G Alkatea, Oñatiko Udalaren ordezkaritzan,

Bestetik, Irati Jimenez Uriarte,xxx NAN zenbakiduna, Olaso Dorrea Fundazioko lehendakaria eta Bergarako San Pedro kalea, 2an helbideratuta dagoen OlasoDorrea Fundazioaren izenean.

Bi aldeek elkarri elkar behartzeko ahalmena aitortu eta

ADIERAZI DUTE:

Kontuan izanik,

1. Olaso Dorrea Fundazioa Telesforo Monzon euskal herrigintza laborategia (TMeLab) ekimenaren sustatzailea dela,
2. Ekimen horren baitan eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) Parte Hartuz ikerketa taldearekin batera NAZIOMETROA, Euskal Burujabetzaren Barometroa ikerketa abiatu duela Fundazioak,
3. NAZIOMETROAk euskal herritarren nahi eta gogoen inguruan ezagutza zabalagoa izateko aukera emango duela, eta horrek euskal herri erakundeen esku hartze eta interbentzio ildoak zehazkiago eta ezagutza gehiagorekin aurrea eramateko aukera ahalbideratuko duela, udal mailakoak barne,
4. Ekimen honek betetzen duela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22. artikuluen 2 c) atalak xedatutakoa,

Goian aipaturiko bi erakundeek Olaso Dorrearen NAZIOMETROA ekimena babestea adostu dute, ondorengo

KLAUSULAK hitzartuz:

LEHENENGOA.- Olaso Dorrea Fundazioak honako konpromisoak hartzen ditu:

- Naziometroaren urteroko emaitzak Udalari jakinaraziko dizkio, horretarako emaitzenaurkezpena prestatuz; zurigarri ekonomikoak ere bidaliko dizkio.
- Udalak hala eskatuta emaitzen aurkezpen publikoa egin ahalko da, bi erakundeekadostutako datetan.

BIGARRENA.- Oñatiko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

-Oñatiko Udalak urtero 3.500 euroko diru-laguntza (1115 diru-atala) emango dio Olaso Dorrea Fundazioari (NAZIOMETROAren ekimena sustatzeko. Diru-laguntza bi epetan ordainduko da, erdia hitzarmena sinatzean eta beste erdia emaitzak eta zurigarriak Udalakonartzen ditunean.

-Udalaren babesletza hau, Naziometroak publiko egiten dituen dokumentuetan bai eta web orrian jasoko da, Udalaren irudiarekin batera.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau indarrean egongo da urtebetez.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honetan Zuzenbide Zibilak agintzen du, dirulaguntza arloan izan ezik. Dirulaguntzari dagokionean, hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako arauak izango dira aplikagarri:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta Lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua
- Oñatiko Udaleko Dirulaguntzen 2023-2026 Plan Estrategikoa,
- 2009ko Oñatiko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra,

Eta dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute bi aldeek.

Izpta.: Izaro Elorza Arregi
Oñatiko Udaleko Alkatea

Izpta.: Irati Jimenez Uriarte
Olaso Dorrea Fundazioko Lehendakaria

Jatorrizkoa, elektronikoki sinatua